


ANDRETXEA

PROGRAMAZIOA · PROGRAMACIÓN
2025

Urria · Abendua ~ Octubre · Diciembre

Diseinua: limoiura.com





Andretxea herritarrei irekitako gune bat da, berdintasunaren eta tratuen alde lan egitea helburu duena, eta errealitatea ikuspegi kritiko, dekolonial eta feministatik aztertzeke tresnak eskaintzen dituena. Gainera, topaketarako, kultura-aniztasunerako, emakumeen ahalduntzerako, elkartegintzarako eta herritarren partaidetzarako lekua ere bada.

Liburuxka honetan, Andretxeak eskaintzen dituen jardueren buruzko informazioa aurkituko duzu: tailerrak, emakumeen ahalduntzeko ikastaroak eta espazioak, erakusketak, irakurketa guneak, hitzaldiak, liburuen aurkezpenak, etab.

Zure zain gaude!

Andretxea es un espacio abierto a la ciudadanía que tiene como objetivo trabajar a favor de la igualdad y los buenos tratos y donde se ofrecen herramientas para analizar la realidad desde una perspectiva crítica, decolonial y feminista. Es, además, un lugar para el encuentro, la multiculturalidad, el empoderamiento de las mujeres, el asociacionismo y la participación ciudadana.

En este folleto encontrarás información sobre las diversas actividades que ofrecemos desde Andretxea: talleres, cursos y espacios para el empoderamiento de las mujeres, exposiciones, espacios de lectura, charlas, presentaciones de libros, etc.

¡Te esperamos!

EMAKUMEENTZAKO JABETZE-ESKOLA


Prestakuntza feministarako gune bat da, irekia, hurbila, irisgarria eta plurala. Bertan, adin eta jatorri guztietako emakumeak ahalduzko prozesuak bultzatzen dira, eta hainbat eremutan parte-hartzea era aktiboan erraztuko duten prozesuak egitea ahalbidetzen da.

Tresnak eskaintzen dizkigu emakumeok geure buruaren eta gure bizitzaren jabe izan gaitezen, maila pertsonalean eta kolektiboan indartzeko. Hausnartzeko, eztabaidatzeko eta ikasteko topagunea ere bada, baita kolektibo eta sareetan parte hartzeko eta antolatze aukera ematen duten estrategia eta aliantza feministak sortzeko eta indartzeko gunea ere.

ESCUELA DE EMPODERAMIENTO PARA MUJERES

Es un espacio para la formación feminista, abierto, cercano, accesible y plural, en el que se impulsan procesos para el empoderamiento de las mujeres de todas las edades y procedencias y donde se posibilita la realización de procesos que faciliten activamente la participación en diferentes ámbitos.

Nos ofrece herramientas para que las mujeres seamos dueñas de nosotras mismas y de nuestras vidas, para fortalecernos a nivel personal y colectivo. Es también un lugar de encuentro para reflexionar, debatir y aprender, y un espacio para crear y fortalecer estrategias y alianzas feministas que ofrecen la posibilidad de participar y organizarse en colectivos y redes.



AURREMATRIKULA BEHAR DUTEN IKASTARO ETA JARDUEREI BURUZKO INFORMAZIOA

AURREMATRIKULA EGITEKO EPEA: 2025EKO IRAILAREN 1ETIK 23RA (BIAK BARNE)

Aurrematrikula egiteko, Udalaren eta Andretxearen webguneetan eskuragarri dagoen online inprimaki bat bete behar da. Andretxean ere aurrez aurre bete ahal izango da.

Gutxienez 8 pertsona behar dira ikastaroa edo jarduera osatzeko. Aurrematrikula egin duten pertsonen kopuruak ezarritako

gehieneko parte-hartzaile kopurua gainditzen badu, parte-hartzaileak zozketa bidez hautatuko dira.

Zerrenda bat egingo da onartutako pertsonekin. Zerrenda udal-webgunean egongo da eskuragarri (www.eibar.eus) 2025eko irailaren 25etik aurrera.



INFORMACIÓN SOBRE LOS CURSOS Y ACTIVIDADES QUE REQUIEREN PREMATRÍCULA

PLAZO PARA REALIZAR LA PREMATRÍCULA: DEL 1 AL 23 DE SEPTIEMBRE DEL 2025 (AMBAS INCLUIDAS)

La prematrícula se realizará cumplimentando un formulario online disponible en las páginas web municipal y de Andretxea. También se podrá rellenar presencialmente en Andretxea.

Se requiere un mínimo de 8 personas para completar el curso o actividad. En caso de que el número de personas pre-


matriculadas supere el número máximo de participantes establecido, la selección de las participantes se realizará mediante sorteo.

Se realizará un listado con las personas admitidas. El listado estará disponible en la página web municipal (www.eibar.eus) a partir del 25 de septiembre del 2025.

IKASTAROAK ETA TAILERRAK

ZORU PELBIKOA INDARTZEKO TAILERRA: GURE GORPUTZAK AHALDUNTZEN TALLER DE FORTALECIMIENTO DEL SUELO PÉLVICO: EMPODERANDO NUESTROS CUERPOS

Zoru pelbikoaren gihar guztiak indartzea da tailerraren helburua. Tailerra edozein emakumerentzat da, bereziki menopausia garaian hasita edo murgilduta daudenentzat edota umetokiko edo puxikako prolapsoak sufritzen dituztenentzat, pixa-galerak dituztenentzat eta erditu berri dauden emakumeentzat.



El objeto del taller es el fortalecimiento de la musculatura del suelo pélvico. Está dirigido a cualquier mujer, especialmente a aquellas que han iniciado o están pasando el periodo de la menopausia, o bien aquellas que sufren prolapsos uterinos o de vejiga, pérdidas de orina y a mujeres jóvenes que han parido recientemente como tratamiento postparto.

Egunak /Días:

Urriak 8, 15, 22 eta 29, azaroak 5, 12, 19 eta 26 eta abenduak 3 eta 10, asteazkenak 8, 15, 22 y 29 de octubre, 5, 12, 19 y 26 de noviembre y 3 y 10 de diciembre, miércoles.

Ordua /Hora:

10:30 - 12:00

Tokia /Lugar :

Andretxea

Hizkuntza /Idioma:

Gaztelania / castellano

Formatzailea /Formadora:

Saioa Baena Gorosabel

Ikastaroaren prezioa / Precio del curso:

Eibarren erroldatuta dauden emakumeentzat 10 €. Eibarren erroldatuta ez dauden emakumeentzat 15 €.

Mujeres empadronadas en Eibar 10€.

Mujeres no empadronadas en Eibar 15€.

***18 urtetik gorako emakumeei zuzendua**

***Dirigido a mujeres a partir de 18 años**

EMAKUMEAK INPROBISATZEN

MUJERES IMPROVISANDO

Antzerki-inprobisazioaren jokotik esperimentatu ahal izateko tailerra da hau, dramaturgia kolektiboaren hastapena. Inprobisazio-tekniken bidez, geure burua pixka bat gehiago ezagutuko dugu, gure mugak deskubrituko ditugu, eta gure harremanetarako moduan baldintzatzen gaituzten blokeoak desegingo ditugu. Jolasetik eta barreetatik ezagutu eta esperimentatu nahi duen emakume orori zuzenduta dago, interpretazioan duen esperientzia kontuan hartu gabe.

Este es un taller para poder experimentar desde el juego de la improvisación teatral, una iniciación a la dramaturgia colectiva. Se trata de un taller donde a través de las técnicas de improvisación vamos a conocernos un poquito más a nosotras mismas, descubrir nuestros límites, disolver bloqueos que nos condicionan en nuestra manera de relacionarnos. Está dirigido a toda mujer que le apetezca conocerse y experimentarse desde el juego y la risa, sin importar su experiencia en la interpretación.



Egunak /Días:

Urriak 4 de octubre, larunbata / sábado

Ordua /Hora:

10:30 - 14:30 / 15:30 - 19:30

Tokia /Lugar :

Arrateko aterpetxea / Albergue de Arrate

Hizkuntza /Idioma:

Gaztelania / castellano

Formatzaileak /Formadoras:

Elba Ruiz, Zahira Montalvo, (Kankaneo Teatro)

Ikastaroaren prezioa / Precio del curso:

Eibarren erroldatuta dauden emakumeentzat 8 €. Eibarren erroldatuta ez dauden emakumeentzat 10 €.

Mujeres empadronadas en Eibar 8€.

Mujeres no empadronadas en Eibar 10€.

***18 urtetik gorako emakumeei zuzendua**

***Dirigido a mujeres a partir de 18 años**

DIAFREOA: TENTSIO MUSKULARRAK ASKATUZ ETA GURE BIZIPENAK INTEGRATUZ

**DIAFREO:
LIBERANDO TENSIONES MUSCULARES E
INTEGRANDO NUESTRAS VIVENCIAS**

Diafreoa maila korporala, mentala, emozionala eta energetikoa integratzen dituen lan-metodoa da. Metodo honek gorputz hizkuntzaranzko bidaia zirrara-garri batean murgiltzera eta tresna fisikoak zein emozionalak barneratzera gonbidatzen zaitu.

Ehun sakoneko tentsioak askatzea bilatuko dugu, eta gihar-kateetan bizitzari aurre egiteko eta geure botere pertsonala gauzatzeko behar dugun egitura aurkitzen lagunduko dugu.



La diafreo se define como un método de trabajo que integra el plano corporal, mental, emocional y energético. Un método que te invita a sumergirte en un viaje apasionante hacia el lenguaje del cuerpo y adquirir desde herramientas físicas a emocionales.

Buscaremos soltar y liberar las tensiones en el tejido profundo y en las cadenas musculares para que nos ayude a encontrar la estructura que necesitamos para afrontar la vida y ejercer nuestro propio poder personal.

Egunak /Días:

Azaroak 14, 21 eta 28 eta abenduak 5, 12 eta 19, ostiralak
14, 21 y 28 de noviembre, y 5, 12 y 19 de diciembre, viernes

Ordua /Hora:

17:00 - 19:00

Tokia /Lugar :

Andretxea

Hizkuntza /Idioma:

Gaztelania / castellano

Formatzaileak /Formadoras:

Idoia Eizmendi, Margui Rodríguez

Ikastaroaren prezioa / Precio del curso:

Eibarren erroldatuta dauden emakumeentzat 10 €. Eibarren erroldatuta ez dauden emakumeentzat 15 €.

Mujeres empadronadas en Eibar 10€.

Mujeres no empadronadas en Eibar 15€.

***18 urtetik gorako emakumeei zuzendua**

***Dirigido a mujeres a partir de 18 años**

AUTODEFENTSA FEMINISTA TAILERRA

TALLER DE AUTODEFENSA FEMINISTA

Zer dira eraso sexistak? Nola pairatzen ditugu? Zeintzuk dira gure bizipenak eraso horien aurrean? Nola identifikatu erasoak? Emakumeok pasibotasunaren ideian hezten gaituztenez, babesaren beharra dugun pertsonak garela sinesten dugu. Ideia hori hautsi eta geure burua ezagutu, egoeraz jabetu eta boteretzeko autodefentsa feminista lehenesten dugu. Egin aurre indarkeria sexistari. Nik, zuk, guk ... ekin!

¿Qué son las agresiones sexistas? ¿Cómo las padecemos? ¿Cuáles son nuestras vivencias ante esto? ¿Cómo identificar los ataques? Las mujeres nos educamos en la idea de la pasividad y creemos que somos personas necesitadas de protección. Romperemos esta idea y priorizaremos la autodefensa feminista para reconocernos, tomar conciencia de la situación y empoderarnos. Combate la violencia sexista. ¡Yo, tú, nosotras... a actuar!

Egunak /Días:

Azaroak 18 eta 20, asteartea eta osteguna
18 y 20 de noviembre, martes y jueves

Ordua /Hora:

17:00 - 19:00

Tokia /Lugar :

Andretxea

Hizkuntza /Idioma:

Euskara

Formatzailea /Formadora:

Maider Avaristo (Emagin)

Ikastaroaren prezioa / Precio del curso:


Eibarren erroldatuta dauden emakumeentzat 8 €. Eibarren erroldatuta ez dauden emakumeentzat 10 €.

Mujeres empadronadas en Eibar 8 €.

Mujeres no empadronadas en Eibar 10 €.

***16 urtetik gorako emakumeei zuzendua**

***Dirigido a mujeres a partir de 16 años**



MUGIMENDU ADIERAZKORRA LANTZEKO TAILERRA: GORPUTZ- ADIMENA, EMOZIOAK ETA AHALDUNTZEA

TALLER DE MOVIMIENTO EXPRESIVO:
INTELIGENCIA CORPORAL, EMOCIONES
Y EMPODERAMIENTO

Saio hauek Mugimendu Adierazkorra lantzeraz bideratuta daude, eta haien helburua da, arreta gorputz-adimenean jarrita eta taldean batzeak ematen duen indarra aprobetxatuz, dantza gidatua eta librearen, musikaren, hitzaren, eta kon-taktuaren bidez, konfiantza, bizitasuna, ahalmen pertsonala, askatasuna eta sormena berreskuratzea eta aktibatzea. Helburua emakumeok gure gorputzari, emozioei eta ahalmenei jarritako mugak identifikatu eta hauei aurre egiteko bi-deak lantzea da.

Se trata de sesiones de Movimiento Expresivo que, centradas en la mente corporal y aprovechando la fuerza que proporciona la unión en grupo, buscan recuperar y activar la confianza, la vitalidad, el potencial personal, la libertad y la creatividad a través de la danza guiada y libre, la música, la palabra y el contacto. El objetivo es identificar los límites que las mujeres ponemos a nuestro cuerpo, a nuestras emociones y a nuestras capacidades y trabajar los caminos para combatirlas.



Egunak /Días:

Urriak 7, 14, 21 eta 28 de octubre, azaroak 4 eta 11 de noviembre, astearteak / martes

Ordua /Hora:

17:00 - 19:00

Tokia /Lugar :

Andretxea

Hizkuntza /Idioma:

Euskara

Formatzailea /Formadora:

Begoña Juaristi Egiraun

Ikastaroaren prezioa / Precio del curso:

Eibarren erroldatuta dauden emakume-entzat 10 €. Eibarren erroldatuta ez dau-
den emakumeentzat 15 €.

Mujeres empadronadas en Eibar 10€.

Mujeres no empadronadas en Eibar 15€.

***18 urtetik gorako emakumeei zuzendua**

***Dirigido a mujeres a partir de 18 años**



GURE INGURUKO SENDABELARRAK EZAGUTU ETA ERABILTZEN HASTEKO OINARRIZKO IKASTAROA

CURSO BÁSICO PARA CONOCER Y EMPEZAR A UTILIZAR LAS PLANTAS MEDICINALES DE NUESTRO ENTORNO

Ikastaro honetan gure inguruko sendabelarrak ezagutu eta identifikatuko ditugu. Zertarako balio duten eta nola erabil ditzakegun ikusiko dugu: nola eta noiz bildu, nola kontserbatu eta nola hartu. Era berean, sendabelar hauekin oinarritzko prestaketak egiten ikasiko dugu (beratuaq oliotan eta alkoioletan). Azken horietatik abiatuz baltsamo eta ukenduak egiten ere ikasiko dugu.

En este curso nos acercaremos a las plantas medicinales de nuestro entorno, las conoceremos e identificaremos. Veremos para qué sirven y cómo podemos utilizarlas: cómo y cuándo recogerlas, conservarlas y tomarlas. También aprenderemos a hacer las preparaciones básicas que podemos hacer con estas plantas medicinales (maceradas en aceite y alcohol) y saber cómo utilizarlas. Igualmente aprenderemos a hacer bálsamos y ungüentos partiendo de estos últimos.

***18 urtetik gorako emakumeei zuzendua**

***Dirigido a mujeres a partir de 18 años**

Egunak /Días:

Urriak 6, 13, 20 eta 27 de octubre,
astelehenak / lunes

Ordua /Hora:

17:30 - 19:30

Tokia /Lugar :

Andretxea

Hizkuntza /Idioma:

Euskara

Formatzailea /Formadora:

Oihane Lekunberri Ansola

Ikastaroaren prezioa / Precio del curso:

Eibarren erroldatuta dauden emakumeentzat 8 €. Eibarren erroldatuta ez dauden emakumeentzat 10 €.

Mujeres empadronadas en Eibar 8€.

Mujeres no empadronadas en Eibar 10€.



MAISTRAK LIBURUTEGIA: IRAKURKETA FEMINISTEN GUNEA

BIBLIOTECA MAISTRAK: ESPACIO DE LECTURAS FEMINISTA

Genero eta feminismo gaietan espezializatutako liburutegia da, eta kontsulta-zerbitzuak, aholkularitza espezializatua eta liburuen mailegua eskaintzen ditu.

Liburutegian nazioarteko eta nazioko emakume idazleen tituluak aurkituko dituzu, emakumeen errealitatetik hurbil daudenak, baita hainbat gairi buruzko irakurketa errazeko liburuak ere.

Ikasteko eta banaka edo taldeka lan egiteko espazio bat ere badu, non oso giro atsegina eta lasaia dagoen.

Es una biblioteca especializada en temas de género y feminismos que ofrece servicios de consulta, asesoramiento especializado y préstamo de libros.

En la biblioteca puedes encontrar títulos de escritoras internacionales y nacionales, próximos a la realidad de las mujeres, así como libros de lectura fácil sobre diversos temas.

Cuenta también con un espacio para el estudio y trabajo individual o grupal, donde existe un ambiente agradable y tranquilo.



MUNDUKO EMAKUMEEN LITERATURA-SAIOAK: ESPAINIAKO ABANGOARDIA

SESIONES DE LITERATURA DE LAS MUJERES DEL MUNDO: VANGUARDIA ESPAÑOLA

Saio historiko hauetan, estatu espainiarrak XX. mendearen hasieratik 1936ko Gerra Zibilera arte (errepublikatik igarota), bizi izan zuen abangoardia-garaia aztertu eta irakurriko dugu. Rosalía de Castro, Concepción Arenal eta Emilia Pardo Bazán idazleen idazkiak ezagutuko ditugu, besteak beste.

Garai hartako egile guztiek salatzen dute Espainiako emakumeen egoera, eta hezkuntza, botoa, dibortzioa... aldarrikatzen dituzte. Garai sozialki asaldatua, itxaropentsua, aldaketaz eta ilusioz beteta da emakumeentzat.

Beti bezala, literatura-kritika feminista erabiliko dugu testu bateratuak aztertze-ko eta komentatzeko.

En estas sesiones históricas analizaremos y leeremos la época de vanguardia que vivió el estado español desde comienzos del siglo XX hasta la Guerra Civil en 1936, pasando por la república. Conoceremos los escritos de Rosalía de Castro, Concepción Arenal y Emilia Pardo Bazán, entre otras.

Todas las autoras de la época denuncian la situación de las mujeres en España y reivindican la educación, el voto, el divorcio... Es una época socialmente convulsa, esperanzadora, llena de cambios y de ilusión para las mujeres.

Utilizaremos, como siempre, la crítica literaria feminista para analizar y comentar textos conjuntos.

Egunak /Días:

2025: urriak 8 de octubre, azaroak 5 de noviembre, abenduak 3 de diciembre
2026: urtarrilak 7 de enero, otsailak 4 de febrero, martxoak 4 de marzo, apirilak 15 de abril, maiatzak 6 de mayo, ekainak 3 de junio, asteazkenak / miércoles

Ordua /Hora:

17:00 - 19:00

Tokia /Lugar :


Andretxea

Hizkuntza /Idioma:

Gaztelania / castellano

Formatzailea /Formadora:

Ainhoa Aldazabal Gallastegui (Skolastika)



EMAKUMEAK AHALDUNTZEKO ESPAZIOAK

ESPACIOS PARA EL EMPODERAMIENTO DE LAS MUJERES

Ahalduntzea lantzeko espazioak dira, talde-prozesu baten barruan, arlo pertsonaletik kolektibora, hainbat behar aztertu eta lantzeko.

Son espacios para trabajar el empoderamiento, de lo personal a lo colectivo, en clave de proceso grupal para atender y trabajar diversas necesidades.

EMPALABRAMIENTO: JABETZEA BULTZATZEKO GAZTELANIAZKO KLASEAK

EMPALABRAMIENTO: CLASES DE CASTELLANO CON PERSPECTIVA EMPODERANTE

Ikastaroan parte hartzen duten emakumeen ahalduntzea sustatzera bideratuta dago, haien independentziara eta autonomia pertsonalera hurbilduz. Helburu nagusia da gaztelaniaz alfabetatzea eta oinarritzko euskarara hurbiltzea. Konfiantzazko espazio bat partekatzen dutela sentitzea nahi dugu, askatasunez hitz egin eta emakume izateari buruz hausnartu ahal izateko.

Está orientado a aumentar el empoderamiento de las mujeres que participan en el curso, acercándose a su independencia y autonomía personal. El objetivo principal es la alfabetización en castellano y el acercamiento al euskera básico. Queremos que sientan que comparten un espacio de confianza en el que poder hablar con libertad y reflexionar sobre su condición de mujer.

Espazio hau genero-ikuspedia kontuan hartzen duten materialak egokituz eta ikasleak bizi diren testuinguru soziala kontuan hartuz sortu zen.

Este espacio se creó adaptando materiales que tienen en cuenta la perspectiva de género y teniendo en cuenta el contexto social en el que viven las alumnas.

Saioak astearte, ostegun eta ostirale-tan izaten dira, 10:00etatik 12:00etara, Andretxean.

Las sesiones son los martes, jueves y viernes de 10:00 a 12:00 en Andretxea.

Formatzailea Nerea del Campo Aguirre da.

La formadora es Nerea del Campo Aguirre.

**Parte hartzeko / Para participar: andretxea@eibar.eus
943 54 39 38 - 688 85 34 40, Isasi 11**

HARREMAN AFETIBOAK TRATU ONAK SUSTATZEKO

VÍNCULOS AFECTIVOS PARA LA PROMOCIÓN DEL BUEN TRATO

Espazio honek emakumeen ahalduztzean laguntzen du, Tratu Onak txertatuz arlo pertsonalean, harremanetan eta arlo sozialean, norberarekiko eta ingurunearekiko bake-harremanak sortzen dituelako.

Harreman afektiboak Tratu Onaren eredu-tik landu nahi dituzten emakumeei zuzendutako prozesu-gunea da hau.

Emakumeen arteko harremanak batzuetan konplexuak dira; izan ere, konturatu gabe, mendetasun- eta nagusitasun-eskema bera errepikatzen dugu, baita botere-harremanak ere, zeren indarkeria eta boterea, ahal denean gauzatzen baitira.

Horregatik, tratu txarrei aurre egiteko, diskurtsoa lantzea soilik ez da nahikoa. Bizipenak, sentrazioak, zirrarak eta beste diskurtso mota bat ere landu behar dira. Tratu txarraren aurrean, tratu ona landu beharko genuke.

Gune honetan Tratu Ona hiru dimentsiotan lantzen da: barnekoa, harremanetako eta soziala.

Saioak hilean bi ostegunetan izango dira, 17:00etatik 19:00etara, Andretxean.

Dinamizatzailea Izaskun Zarrandikoetxea Montejo da.

Este espacio contribuye en el empoderamiento de las mujeres a través de incorporar el buen trato en lo personal, relacional y lo social para generar relaciones de paz con una misma y con su entorno.

Este es un espacio de proceso dirigido a mujeres que quieran trabajar las relaciones afectivas desde el modelo de buen trato.

Las relaciones entre las mujeres son en ocasiones complejas, ya que sin darnos cuenta, repetimos el mismo esquema de sumisión o superioridad así como las relaciones de poder; porque la violencia y el poder se ejerce cuando se puede.

Por ello, frente al maltrato no es solo trabajar discurso, hay que trabajar vivencias, sensaciones, emociones y otro tipo de discurso. Frente al maltrato tendríamos que trabajar el buen trato.

En este espacio trabajaremos el Buen Trato en tres dimensiones: el interno, el relacional y el social.

Las sesiones son dos jueves al mes de 17:00 a 19:00h, en Andretxea.

La dinamizadora es Izaskun Zarrandikoetxea Montejo.



GEURE BURUA MAITATZEN IKASTEN

APRENDIENDO A QUERERNOS

Espazioaren hartzaileak indarkeria matxistatik irten nahi duten emakumeak dira: bortizkeria dagoen erlazioetan murgilduta egonda, oraindik erabakiak hartzeko prest ez dauden emakumeak; banatu berri direnak eta oraindik krisialdiaren emergentzian daudenak; eta banandu ondoren, kaltetutako identitatea konpondu beharra dutenak, bizitza-proiektu baliotsu eta duina tratuetik eraikitzeko.

Talde-interakzioaren bitartez, beren bizitzaren gaineko erabakiak hartzen lagunduko zaie, tratuetik bizitza-proiektu bat sortzeko.

Dinamizatzailea Itziar Gandía Quintanilla izango da, Lura terapia psikologiko eta sexologikoko guneakoa.

Informazio gehiago:
indarkeria@eibar.eus
943 70 84 40

* Genero indarkeriaren kontrako Estatu Itunak diruz lagundutako gunea.


Las destinatarias son las mujeres que quieren salir de la violencia machista: las mujeres que, inmersas en las relaciones en las que existe violencia, aún no están dispuestas a tomar decisiones; las mujeres que, separadas recientemente, se encuentran en la inmediatez de la emergencia y la crisis; y las mujeres que, tras la separación, necesitan reparar la identidad dañada para construir un valioso y digno proyecto de vida desde el buen trato.

A través de la interacción grupal se les ayudará a tomar decisiones sobre su vida para crear un proyecto de vida desde el buen trato.

Itziar Gandía Quintanilla, del centro de terapia psicológica y sexológica Lura, es la dinamizadora del grupo.

Para más información:
indarkeria@eibar.eus
943 70 84 40

* Espacio subvencionado por el Pacto de Estado contra la violencia de género.



EGITARAU

URRIA

Liburu-aurrezpena:

Masculinidades y feminismo

(Edizio berria)

Hizlaria: Jokin Azpiazu Carballo

Hizkuntza: Gaztelania

Eguna eta ordua: Urriak 16, osteguna, 18:00

Tokia: Andretxea

AZAROA

AZAROAK 25 Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna

Hitzaldia:

Indarkeria matxista kasuen aurrean, zer salaketa- eta defentsa-aukera ditugu?

Hizlaria: Irule abokatuak

Hizkuntza: Gaztelania

Eguna eta ordua:

Azaroak 13 osteguna 18:00

Tokia: Andretxea

Helduentzako ipuinak:

“Hariak, jostorrazak eta zauriak”

Ipuin Kontalaria:

Mireia Delgado Exposito

Hizkuntza: Euskara

Eguna eta ordua:

Azaroak 26, asteazkena 18:00

Tokia: Andretxea

ABENDUA

Liburu-aurrezpena:

Euskal Herriko Greba Feministak.

Diskurtsoaren analisia feminismo materialistatik

Hizlaria: Uma Ulazia Zubeldia

Hizkuntza: Euskara

Eguna eta ordua:

Abenduak 11 osteguna, 18:00

Tokia: Andretxea

ERAKUSKETA

Indarkeria matxisten aurkako memoria-lekuak

Ikusgai azaroaren 3tik abenduaren 31ra

Erakusketa honek jasotzen ditu emakumeok sistematikoki jasaten ditugun indarkeriek egindako kaltea erreparatzeko mundu osoko hainbat kolektibok bultzatzen dituzten memorializazio-prozesuak. Ekimen hauen helburua da memoria kolektibo bat eraikitzen laguntzea eta indarkeria matxisten biktimen izan diren eta biziraun duten emakumeen memoria soziala eraikitzea.

Hitzaldia:

Indarkeria matxisten biktimen ahotsak: memoria, erreparazioa eta aitortza.

Hizkuntza: Euskara

Eguna eta ordua: Azaroak 6, osteguna, 18:00etan

Hizlaria: Mugarik Gabe

* Programazioko jarduerak irekiak eta doakoak izango dira.

PROGRAMACIÓN

OCTUBRE

Presentación del libro:
Masculinidades y feminismo
(Nueva edición)

Ponente: Jokin Azpiazu Carballo

Idioma: Castellano

Día y hora: 16 de octubre, jueves, 18:00

Lugar: Andretxea

NOVIEMBRE

25 DE NOVIEMBRE Día Internacional
Contra la Violencia hacia las Mujeres

Charla:

Ante los casos de violencia machista, ¿Qué opciones de denuncia y defensa tenemos?

Ponente: Irule abokatuak

Idioma: Castellano

Día y hora:

13 de noviembre, jueves, 18:00

Lugar: Andretxea

Cuentos para personas adultas:

"Hariak, jostorratzak eta zauriak"

Cuenta cuentos:

Mireia Delgado Exposito

Idioma: Euskara

Día y hora:

26 de noviembre, miércoles, 18:00

Lugar: Andretxea

DICIEMBRE

Presentación del libro:
Euskal Herriko Greba Feministak.

Diskurtsoaren analisisa feminismo
materialistatik

Ponente: Uma Ulazia Zubeldia

Idioma: Euskara

Día y hora:

11 de diciembre, jueves, 18:00

Lugar: Andretxea

EXPOSICIÓN

Lugares de la memoria frente a las violencias machistas

Se podrá visitar del 3 de noviembre al 31 de diciembre

Esta exposición recoge los procesos de memorialización impulsados por diversos colectivos de todo el mundo para reparar las violencias que las mujeres enfrentamos de manera sistemática. Estas iniciativas buscan contribuir a la construcción de una memoria colectiva y a forjar la memoria social de las mujeres víctimas y sobrevivientes de las violencias machistas.

Charla:

Voces de víctimas de violencias machistas: memoria, reparación y reconocimiento.

Idioma: Castellano

Día y hora: 11 de noviembre, martes, a las 18:00

Ponente: Mugarik Gabe

* Las actividades de la programación serán abiertas y gratuitas

Arreta eta Informazioa

Atención e Información

Andretxea-Berdintasun Zerbitzuko baliabide eta zerbitzuen inguruko informazioa, orientazioa eta harrera, baita kanpokoetarako ere.

Información, orientación y acogida a recursos del Servicio de Igualdad - Andretxea o externos.

Lan-aholkularitza zerbitzua zaintzaile eta etxeko langileentzat

Servicio de orientación laboral en el trabajo de hogar y de cuidados

Orientazio juridikoko zerbitzu bat da, etxeko eta zaintzako langileei zuzendua, lan-eskubideei buruzko orientazioa eta aholkularitza emateko, bai eta prestakuntza-, gizarte-, gizarteratze- eta laneratze-premietan laguntzeko ere. Era berean, lege-aholkularitza eskaintzen zaio etxeko eta zaintzako langileak kontratatu nahi dituen edonori, legeak kontratazio mota horietan ezartzen dituen eskubideak eta betebeharrak ezagutzeko.

Es un servicio de orientación jurídica dirigido a trabajadoras de hogar y cuidados para orientar y asesorar sobre derechos laborales, así como acompañar en las necesidades formativas, sociales y de integración sociolaboral. También se ofrece asesoramiento legal a cualquiera que

quiera contratar a trabajadoras de hogar y cuidados para conocer los derechos y obligaciones que marca la ley en este tipo de contrataciones.

Zerbitzu hau doan eskaintzen da asteazkenero 16:30etik 19:30era, Andretxean.

Este servicio se ofrece de manera gratuita todos los miércoles de 16:30 a 19:30 en Andretxea.

Hitzordua eskatu behar da Andretxean. Hay que solicitar cita previa en Andretxea.

Harremanetarako / Contacto:
943 54 39 38 - 688 85 34 40

Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeen administrazio-egoera erregularizatzeko orientazio-zerbitzua

Servicio de orientación para la regularización de la situación administrativa de las mujeres víctimas de violencia machista

Zerbitzu honek laguntza eta aholkularitza pertsonalizatua eskaintzen die indarkeria matxista jasan duten eta egoera administratibo irregularrean dauden emakumei. Haien egoera erregularizatzeko biktartekoei eta eskubideen legezkotza bidei buruzko informazioa ematea da helburua.

Es un servicio que ofrece acompañamiento y asesoramiento personalizado a mu-

jeros en situación administrativa irregular que han sufrido violencia machista. El objetivo es informar sobre las vías legales existentes para regularizar su situación y facilitar el acceso a recursos y derechos.

Zerbitzu hau doan eskaintzen da asteazkenero 16:30etik 19:30era, Andretxean.

Este servicio se ofrece de manera gratuita todos los miércoles de 16:30 a 19:30 en Andretxea.

Hitzordua eskatu behar da Andretxean
Hay que solicitar cita previa en Andretxea

Harremanetarako / Contacto:
943 54 39 38 - 688 85 34 40

Indarkeria matxistaren aurkako arreta-baliabideak

Servicios de atención frente a la violencia machista

Indarkeria matxista jasan dutenentzako telefono bidezko arreta-zerbitzua
Atención telefónica para quienes han sufrido violencia machista

900 840 111 24 ordu/horas, 365 egun/días (Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco)

Larrialdia / Urgencias: 112

Eibarko Udaltzaingoa / Policía municipal: 943 70 84 24

Eibarko Gizartekintza / Servicios Sociales: 943 70 84 24

Berdintasun Zerbitzua / Servicio de Igualdad: 943 54 39 38

 Andretxea, Isasi 11, Eibar

<https://www.eibar.eus/eu/berdintasuna-andretxea>

 943 54 39 38  688 85 34 40  andretxea@eibar.eus

    Andretxea Eibar



EIBAR
Berdintasuna
Igualdad

